

PRENTSA OHARRA

# Zubikoa Kiroldegiaren eraberritzea bukatuta, hartarako abonuen berregituratzea onartu du udalak

*Aurrerantzean ere, norbanakoen abonua eta familiarra egongo dira eskuragarri. Abonuen berregituratzearekin, egoeraren araberako gizarte taldea baino, herritarraren diru-sarrerak hartuko dira kontuan eta horien araberako hobariak daude onartuak. Bizi-unitateko kideen kopurua ere aintzat hartuko da*

Zubikoa Kiroldegiaren eraberritzearekin bukatuta, kiroldegi-abonuen berregituratzea onartu du Oñatiko Udalak. Bada, urteak dira horretarako beharraz jabeturik zirela, baina kiroldegiaren eraberritzea mahai gainean, gaia zerbitzua hobetu ostera arte uzteko erabakia zegoen hartuta. Orain, horixe bera egin dute eta urte berriarekin batera jarriko da martxan -urriaren 21eko osoko bilkuran onartu zen berregituratzea, ordenantzen eguneratzearekin-. "Herritarren diru-sarreraren araberako hobariak ditugu onartuak. Beraz, datorren urtetik aurrera, erabiltzailearen egoeraren araberako gizarte taldea beharrezan -langabetua, etab.-, haren diru-sarrerak hartuko dira kontuan. Kiroldegiak erabilgarri izaten jarraituko du herritar guztiendako", argitu du Xabier Igartua Loidi Ogasuneko zinegotziak.

Hemendik aurrera ere, norbanakoen abonua eta familiarra egongo dira eskuragarri. Batetik, lau adin tarte daude finkaturik abonuen zenbatekoa zehazterakoan -horietako bakoitzari kuota zenbateko jakin bat dagokio-: 0-2 urte (0 euro), 3-13 urte (90 euro), 14-22 urte eta ikasleak (126 euro) eta 22 urtetik gorakoak (180 euro). Abonu familiarra hartzen dutenek, ostera, %25eko hobaria izango dute familia-buruen kasuan; eta, %50ekoa, seme-alabenean. Beraz, berregituraketarekin, kontzeptuak aldatu badira ere, abonu familiarrerako aukerak eskuragai jarraitzen du. "Inguruko herriekin alderatuta, batez beste, merkeagoak izaten jarraitzen dute Oñatikoek", argitu du Ogasuneko zinegotziak.

Esan moduan, herritar guztiendako erabilgarri izaten segituko du Zubikoa Kiroldegiak, eta, helburu horrekin, elkarbizitza unitatearen bidezko errenten eta hartan bizi diren kideen araberako antolaketa egin da -gutxieneko diru-sarrerarik ez dutenek aparteko hobariak izango dituzte-. Beraz, hainbaten artean, aintzat hartuko da bizikide kopurua, familia ugaridun herritarrak izan edo ez. Honatx, antolaketa taula:

Elkarbizitza Unitatearen kide kopurua	1.- LGSa edota gutxiago	2.- LGS eta LGSaren %150a artean	3.- LGS-aren %150etik eta Bi aldiz LGS	4.- Bi aldiz LGSetik Hiru aldiz LGS
Urteko errentak eurotan	13.300€ edo gutxiago	13.301€-19.950€	19.951€- 26.600€	26.601€-39.990€
Kide bat	% 25eko hobaria.-	0 hobari.-	0 hobari.-	0 hobari.-
2 kide	% 50eko hobaria.-	% 25eko hobaria.-	0 hobari.-	0 hobari.-
3 kide	% 75eko hobaria.-	% 50eko hobaria.-	% 25eko hobaria.-	%15 hobari.-
4 edo gehiago	% 95eko hobaria.-	% 75eko hobaria.-	% 50eko hobaria.-	%25 hobari.-

Kiroldegi eraberritua, martxa onean

Kiroldegian eskaintzen diren zenbait zerbitzuek hasia dute ikasturtea. Eta martxa onean doa orain artekoa. Igeriketaren kasuan, esaterako, 338 neska-mutikok eman dute izena; eta, 581ek, helduen kasuan. Gainera, lau eskaintza berri egin dira 2021. ikasturtean: *HIT, krosfit, TRX* eta *kore stretching*. "Goraka doa kiroldegiaren erabilera. Instalazioak nabarmen hobetu dira eta zenbait eskaintza berri sortu dira. Orain artean pertzibiturikoaren arabera, herritarrak gustura dabilta Zubikoako instalazioetan. Positiboa da balorazioa. Egindako ahalegina nabari dela esango nuke", azaldu du Igartua Loidik.